

Noaia!!!

www.noaia.com



Badatoz Lore eta Ikatz,
Olentzeroren lagunak



Gogotsu hasi du sasoi berria
Usurbilgo Pilota Elkarteak



Hator, hator...

Alkartasuna

Elkartea Baserritar Kooperatiba

alkartasuna@usurbil.com

Ugarte Industrialdea 12

☎ 943 361 114

Danbolina



Abarkak, txapelak, gaitzetinak...



Pazko loreak



Urmeentzako jostailuak



Ardoak



Egutegiak



Otar-Goxo

Elkagaiak

Gabonetako berezitasunak
eta otarrak prezio ezin hobean



Harategiko berezitasunak

Txahal azpizuna
Behi azpizuna
Esneko arkumea
Txerrikumea
Antxumea
Kapoia
Pularda, ehiza,
rosbeef, entrekota (1kg)...

Urdaitegiko berezitasunak

Foie frexkoa
Tè eta Jengibre dum foie
Ahate konfita,
Mikuit
Txatka naturala
izozkina
Bieira betea
Budinak...

Fruta denda berezitasunak

Ananak
Gaztainak
Mahatsa
Orejoiak
Kiwiak
Bertako barazkiak
Fruten selekzio paregabea



Albistea iruditan !!

Errausketaren aurkako manifestazioa, jai giroan

Errausketaren Aurkako Plataformen Koordinakundeak jai giroan egin zuen pasa den larunbateko manifestazioa. Donostiako Bulebarretik martxaren buruan, zaldiak eta “Baserria bizirik” leloa zeraman traktorea. Eta atzetik, manifestariak, batukada baten erritmoan.

Amaieran, manifestua irakurri zuten plataformako kideek. “Hondakinen lege proposamenaren eztabaida ere eragotzi izanak erakusten du zer-nolako balioa duen agintean dagoen klase politikoarentzat herritarren iritzia”.

Agintarien zati handi bat hipokrita dela uste dute, “parte hartzea saltzen dute, baina zer proiektutan eskatu digute iritzia?”, galdetzen zuten euren manifestuan.



ZUBIETARRAK, MANIFESTAZIOAN ERAMAN ZUTEN PANKARTEPEAN.

Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieto, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Mainer Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

UDALBATZAKO AZKEN ERABAKIAK _____ **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN _____ **6. OR.**

EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOA _____ **10. OR.**

LORE ETA IKATZ BISITAN DATOZ _____ **14. OR.**

USURBILGO PILOTA ELKARTEA _____ **16. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



MAIALEN UNANUE

Anormalak omen gara

Zein erraza eta zein polita litzatekeen guztia arazo zebati aurre egin beharrean, gertatu ez balitz bezala egin eta desagertuko balitz! Benetan lasaia izango litzateke gure bizitza: zerua beti litzateke urdina eta pasatzen garen lekutik arrosaren lore-hostoak ikus genitzake! Horrelako gauzak, agian, maitasun filmetan eta Disney-en marrazkietan aurkituko ditugu, baina kalera irten eta hankak lurrean jartzen ditugunean konturatzeko gara errealitatea ez dela hala.

Euskaldunok "normalak" izan behar dugula dio Patxi Lopezek bozgorailutik eta neure buruari galdetzen diot zein momentutan hasi ote ginen abnormalak izaten. "Hemen ez da ezer pasatzen" leloa bizkarrean hartuta hasi zen ikuskizuna: argazkiak kendu, hormetako irudiak "ezabatu"... Orain, Francok opari gisa utzitako erregearen hitzaldia eman behar omen dute Euskal Telebistan. Eskerrik asko Lopez! Egia esan halako huts bat sentitzen nuen gabon gauean, Espainia osoan hura ikus zezaketela, eta "guk zergatik ez?".

Hau al da lau urtez egingo dutena? "Hartu erratza eta baita trapu bat ere, kendu diezaiogun hautsa eta zikina herri honi, eta azkar! Honela soilik lortuko baitugu normaltasuna lortzea!" Benetan anormal aurpegia eduki behar dugu gure muturrean honelakoak egiten hasi eta ezer esango ez dugula pentsatzen badute. Benetan babo aurpegia eduki behar dugu begien aurrean horrelakoak egin eta arazo guztiak uxatuko dituztela uste badute.

Bada, zinez sentitzen dut, baina arazoa argazki, horma eta telebista-saio batzuez haratago doa politikari jaunak. Telebista piztu eta egin dituzuenak harrotasunez zabaltzen dituzuela ikusten dudanean, harrituta besterik ez naiz geratzen. Jarri zaitzete benetako arazok konpontzen, nahikoa zikinkeria baitaukagu metatuta, eta ez gure kale izkinetan, hain zuzen ere.

Nahi dutena esan dezatela, arazok hor diraute eta hala jarraituko dute euren ahalegin guztiak azaleko itxura aldatzen jartzen dituzten bitartean.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Ika-mika!

Usurbilgo martxa

Duela gutxi, usurbildarrei errausketak alternatiba baduela erakutsi duen atez atekoaren inguruan inkesta egin zaigu. Inkestan ikus daiteke usurbildarrak jabetuta gaudela urrats eredugarri hori eman izana harro egoteko arrazoia dela. Ez da hori ordea harro egoteko usurbildarrok daukagun arrazoi bakarra. Errausketa beharrezkoa ez dela eta alternatiba duela erakustez gain, erraustegia eraikitzearen aurkako aldarri ozena egitaren garrantzia barneratuta daukagula erakutsi dugu. Usurbilgo zabor alderraiaren mitoan bezala, zabo-

rra ez baina herriko altxorrik preziatuenak, herritarrak alegia, samaldan joan ginen Donostiara, hango kaleetan gure osasuna kaltetzea onartuko ez dugula aldarrikatzera. Errausketaren alternatiba martxan jartzen eta bultzatzen aritu ondoren, erraustegiaren inposaketari ezetz esateari berrekin behar diogu indartsu. Herritarron erantzuna ikusita, dinamika hori abiatzea, erantzun maila biderkatzea eta honetan ere inguruko herrientzat eredu izatea dagokigu. Usurbilgo martxan dagoen herria da. Usurbilgo martxa eskualdeko herrietara

lehenengo eta Gipuzkoa osora ondoren zabalduko dugu. Erraustegiak Urnietan eta Jaizkibelen hasi, Arpita eta Landarbason zehar segi eta Zubietan bukatu duen suntsiketaren kalejirari azken nota jarriko diogu. Erokeri horretan tematu diren haundi maundiei mezu garbia helaraziko diegu. Birzikla ditzatela beraien buruak eta beraien planak, birziklatzen ez dena errefusatzeko dela ederki asko ikasi baitugu.

Usurbil Bizirik

teilatuar eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 · ASTEASU

☎ 943 69 68 52 · 620 800 186

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

ALIPROX

Kale Nagusia 10

☎ 943 361 182
USURBIL

Konpostatze gunea auzi bidean jarri da

Atsobakar izeneko eremuan konpostagune ekipamendu publikoa jartzeko Arau Subsidiarioetan burutu beharreko aldaketa behin betiko onartu zuen udalbatzak azaroaren 24ko osoko bilkuran. Aldiz, horren aurkako berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen herritar batek. Osoko bilkuran, aipatu alegazioa aintzat ez hartzea erabaki zuen udalbatzak, gobernu taldearen eta Aralarren babesarekin. PSE-EE-ko zinegotziak erabakiaren aurka bozkatu zuen, eta Alkarbide udal taldea abstenitu zen.

Osoko bilkura berean, aldaketa horren aurkako auzia dela eta, bide judizialean parte hartzeko erabakia berretsi zuen udalbatzak, gobernu taldearen eta Aralarren babesarekin. PSE-EE-ko zinegotzia abstenitu zen. Alkarbide aurka agertu zen. Erabaki horren barne, abokatu eta prokuradoreak nortzuk izango diren izendatuak daude jada.

Lurren desjabetzari alegazioak

Artzabaletan kokatu nahi duten errauste planta proiektua gauzatzeko hartu beharreko ondasunen eta eskubideen zerrenda hamabost egunez jenduraren egon den tartean, Udalak alegazio sorta aurkeztu du. Besteak beste, honako alegazioak aurkeztu ditu Udalak: proiektuak behar bezala ez tramitatu eta onartzea, onarpeneko akordioek baliogabetasun akatsa dutela, bozketetan Kontsurtzioko partaide ez ziren kideek parte hartu zutela, Kontsurtzioak eta Batzar Orokorrak ez dutela proiektuak onartzeko ahalmenik edota proiektuak ez duela ez lurralde ezta hirigintza estal-



UDALBATZA AZAROAREN 24AN
BILDU ZEN.

durarik, beharrezkoa den onura publiko aitorzarik ere ez.

Etxez etxeko zerbitzua, behin behinean esleitua

Arreta Zerbitzuak, S.L. enpresak kudeatuko du behin behinean Udalaren etxez etxeko zerbitzua. Esleipenari behin betikotasun izaera emateko, esleipendunak akordioa jakinarazi eta 15 laneguneko epean dokumentazioa aurkeztu beharko du. Udalbatzak aho batez babestu zuen proposamena.

Bosgarren kreditu aldaketa

Diru partida batzuk agortuta egonik eta kreditu gehiago izendatu beharra zegoela ikusita, gobernu taldeak proposatutako bosgarren kreditu aldaketa behin betirako onartu du udalbatzak. Alkarbidek gaia mahai gainean uztea proposatu zuen, baina ez zen aurrera atera. Gobernu taldearen proposamenaren aurka agertu zen Alkarbide. Abstentziora jo zuten Aralar eta PSE-EE-k. Besteak beste, atez ateko bilketarako tresneria erosi, Sekañako urbanizazio lanen bigarren faseari ekin, edota Behemendi Elkarteko gastuetara eta Agerialdeko hobekuntza lanetara bideratu nahi da kreditu aldaketa hau.

Taxi zerbitzuaren tarifan, igoyerarik ez

Gipuzkoako Taxi Elkargoak Gdatorren urteari begira aurkeztu dituen tarifan aurka agertu da udalbatza, gobernu taldeak azaroa amaierako osoko bilkuran adierazten zenez, "proposatutako igoera gehiegizkoa baita gaur egungo krisi ekonomikoaren egoera kontuan hartuta". Gobernu taldeak tarifa mantentzea proposatu zuen. Aralarrek aldeko bozka eman zuen, PSE-EE-ko zinegotzia abstenitu zen. Alkarbidek aurka bozkatu eta Gipuzkoako Taxi Elkargoak aurkeztutakoa babestu zuten.

EA, aurrerantzean Alkarbide udal taldea

Iraila amaierako osoko bilkuran iragarri moduan, EA-k udalean izan duen hiru zinegotziz osaturiko ordezkariak, aurrerantzean Alkarbide izenez jardungo du. Azaroa amaierako osoko bilkurari begira udalean aurkeztutako idatzi baten bidez eman dute erabakiaren berri. Testuan aipatzen denez, "izendatze berri honekin, gure hauteskunde programa eta guregan beren konfiantza jarri zuten herritarren borondatea hobeto islatua geratzen delakoan gaude. Hau da izen aldaketaren zioa". Erabakia izen aldaketara mugatzen dela gaineratzen dute, udal taldearen beste atalak bere horretan mantenduko direla adieraztearekin batera.

ARRAINDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea, 7
Tlf 36 21 64
USURBIL

**BENTA
TABERNA**
Oilasko erreak
Ogitartekoak
San Ignacio 1, behea
USURBIL 943 36 93 05

Josue
Igeltseritza:
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13
Oñandegin - Gozotegia
LABE-GOXO

KALEBERRI

IRATI PORTU

Neguko astinduak



Igande honetan eman zitzaion saria Juan Jose Aranguren, Mikel Laboa plazan jartzeko eskultura lehiaketa irabazteagatik. Ikimilikiliklik lana hiru metroko altuera hartuko duen metalezko eskultura bat izango da, elkarrekin trabatutako bi zati horzdunetz osaturik dagoena.

Honen berri izan nuenean pentsatu nuen ederki lotu beharko zaiola lurrari, bestela aste honetako moduko haizeak susto ederren bat emango baitigu egunen batean. Oraindik udazkenean bagaude ere neguan sartzen hasi garelaz ezin da ukatu. Neguak badaki nahi duenean hortzak erakutsi eta inguruak astintzen. Eskerrak ohituak gaudela astindu hauetara.

Lehenago astean beste mota bateko astindua jaso genuen. Kaxkoko kronika honetan haria apur batez galtzeko baime-na emango diot neure buruari eta atxilotutako gazteei erreferentzia egin behar diet lerro gutxi batzuetan. Zorionez oraingoan ez da usurbildarrik izan tartean, baina askok ezagutzen genuen bat edo beste. Inpotentzia handiz jaso nuen berri hura, eta inpotentzia berbera sentitu dut euretako askok torturatuak izan direla salatu dutenean.



Orain, hau guztiaren inguruan gogoeta egin eta eskultura irabazlea etorri zait burura. Ez dakit nik asko artearen inguruan, baina iruditzen zait artelan bakoitzari norberak inkoszienteki bere interpretazioa egiten diola. Nik neurea egin diot: oinarri sendoa behar dugu haizeak bota ez gaitzan eta hortzak ere baditugu.

URDAIAGA

ALAZNE BEGIRISTAIN

Bide bazterrak



Negua gainean dugun arren, eguraldi hotzari iristea kostatzen ari zaio. Oraingoz ez digu eurite handirik egin baina udazkenaren ondorioz bide bazterrak hostoz josita ditugu. Euri pixka bat egiten duen momentuan estoldek ezingo diote hainbeste zikinkeriarri aurre egin eta dena gainezka egingo dute. Beraz, komeniko litzateke bide bazterrak txukuntzea.



Bestalde esan, oraindik hiru aste falta den arren gainean ditugula Gabonak eta nola ez, gure kaxko honetan ospatzen dugun San Esteban txiki eguna. Abenduaren 26an ospatzen dugu jai hau, aurten larunbata egokitzen da eta oraindik Jai Batzordekoak bildu ez garen arren, urteroko moduan izango dugu meza eta ondoren hamaiketako txoko bat egiteko aukera. Beraz, gonbidaturik zaudete guztiok!

ATXEGALDE

MAJESUS URBIETA

Istorio txiki bat

Aurten Santa Sezili eguna parrokian meza Aederra batekin ospatzeko aukera izan genuen Irriu Abesbatzarekin. Aurreko egunean berriz, emanaldi ederraz gozatu ahal izan genuen Zumarteren eskutik.



Musika aitzakia dela, historia polit bat kontatuko dizuet. Denok ezagunak ditugu "Hiru Tenoreak" Pavaroti, Domingo eta Carreras. Azken hauek politikoki elkarren kontrakoak omen ziren. Ez zuten bat egin nahi izaten mundu mailan ematen zituzten kontzertuetan.

87an ordean, Carrerases gaixotasun larri bat izan zuen, leuzemia eta Estatu Batuetako medikuengana joatea erabaki zuen. Honek guztiak ordea kostu handiak zituela eta laguntza beharrean aurkitu zen eta "Hermosa" izeneko fundazio baten berri izan zuen Madrilen. Bertaratu eta han jaso zuen beharrezko laguntza eta lagunak.

Gerora gaixotasuna gaintu eta kantatzeari ekin zion eta aipatutako fundazioaren sozio ere egin zen. Orduan jakin izan zuen fundazioko sortzaileetako bat Placido Domingo izan zela. Geroztik elkarrekin askotan kantatu izan dute eta kazetari batek nolatan sortu zuen fundazioa galdetuta, Placidok zera erantzun zuen: "horrelako ahotsak ezin dira galdu!".

ZUBIETA

GARAZI ITURRALDE

Zita ugariko larunbata



Kaixo, berriro! Dakizuen bezala larunbat honetan errausketaren aurkako manifestazioa izan da Donostian. Baina, azken orduko manifestazio bakarra ez da izan. Larunbat honetarako hainbat manifestazio elkartu dira; Bilbon, Donostian... denak ere garrantzitsuak. Zaila da beraz, jende asko biltzea manifestazio batean, hainbeste bilkura daudenean.

Beraz, larunbat honetan Donostian izandako errausketaren aurkako protestan, esan didatenez jende ugari bildu zen. Zubietatik ere jende ugari bildu zen, autobus bikoitza Donostia aldera han joan zen. Giro oso polita egon zela ere esan didate eta egunkariak ere hori diote: jendea oihuka, kantuan, traktorea, hogeitazaldi inguru, umeak, gazteak, helduak...

Baina ni ez nintzen ahaztu. Nola ahaztuko nintzen zubietarra izanda eta, batez ere, jakinda etxe ondoan egingo didatela? Baina nik txapelketa bat nuen, Gipuzkoako kayak surfeko txapelketa. Egun osoa igaro nuen Zarautzen olatuei aurre eginez, gora eta behera. Hala ere ez nintzen esku hutsik etorri esku artean bi opari eder ekarri nituen. Bi bigarren postu, bat kayak luzean eta bestea motzean.



Garaipen hau olatuei aurre eginez lortu nuen, gelditu gabe hogeitaz minutuz borrokan. Ea errausketarekin ere horrelako garaipena lortzen dugun, txapelketa bat izango balitz bezala jokatu. Bi garaipen lortu nituen eta harro etorri nintzen etxera eskuak beterik eta errausketarik ez! oihukatuz.

AGINAGA

AITOR HELETA

Ximiori omenaldia



Txikia gelditu zen eliza zaharra, Patxi Seguroolari "Ximio" larunbatean egindako omenaldian, txalapartariak, bertsolariak eta senitartekoek herri babesa jaso ondoren afaria egin zen musikariekin baita ere. Egunean zehar zabalik egon zen apaiz etxean Patxi berak egindako margolanekin erakusketa bat. Baita ere aprobeixatu nahi dut txoko txiki hau salatzeko bere senitartekoek jasan behar dutena bisita egin nahi dioten bakoitzean, ez da nahikoa gartzelan gatibu edukitzea, 1000 km distantzia joateko eta beste 1000 km bueltarako, horregatik beste behin esan behar Euskal Presoak Euskal Herrira!

Gaiak aldatzen abenduaren 19rako Jai Batzordekoek III. Gau Beltza antolatu dute, oraingo honetan Sutagar taldea etorriko da eta honen ondoren gaupasa Eliza Zaharrean. Sarrerak Irrati eta Arrate tabernetan daude salgai. Ondo pasa!



KALEZAR

MADDI GALBETE

Euria ari du

Zorionez edo zoritxarrez, baina azkenean iritsi da ditxosozko udazkena. Benetako udazkena, esan nahi dut. Azaroa osoa ia tirantetan pasa ondoren, gaurko eguraldiak benetan udazkena dela jakinarazi digu. Euria, hotza, haizea... Hostoak hara eta hona ibili dira egun osoan zehar, zuhaitzetako azken hostoak erortzen hasi dira, gaztain usaina nabaritu dut zenbait izkinetan... Indartsu iritsi zaigu, eta zorionez hartu dut nik behintzat. Bazen garaia!!

Txamarra potoloak atera ditugu azkenean armairutik, sudur gorriak ikusi dira lehenengo aldiz udazken honetan.

Astelehena da hau idazten nabilen egun honetan, eta duela gutxi iritsi naiz etxera. Arropa beroa jantzi eta goxo goxo, manta artean, kalean euria ari duen bitartean. Sentsazio berezia iruditu izan zait beti, batez ere, kezkatzeko arrazoirik ez duzunean.

Abestiak dioen bezala "hau egun ederra, euria ari du, baina ederra da". Eta bihar, berriz ere jantziko ditugu katiuska handiak, putzutik putzura ibiliko gara eroak bezala. Zeren, askotan tristeza iruditu zaidan arren, udazkena, uste dut aurkitu diodala merezi duen xarma, badu eta, handia gainera.

Beraz aldatu umorea eta gozatu udazkenaz, aurtengoa motza baita, eta negua gainean baitugu!!



Plaza berri bat izango du Santueneak

Aspaldiko egitasmoa hezurmami-tzen hasi da. Santueneak estalirako gune baten premia du aspalditik. Lehengo astean, Usurbilgo Udalak plaza berri bat egiteko proposamena aurkeztu zien Santueneko bizilagunei. Auzoko elkartean egin zen agerraldian, jakinmin handia sumatu genuen bizilagunen artean. Adi-adi jarraitu zituzten proiektuaren nondik norakoak. Erabiltzaileak batez ere auzoko bizilagunak izango direnez, euren iritzia eta proposamenak funtsezkoak izango direla nabarmendu zuen alkateak behin baino gehiagotan.



ALKATEA SANTUENEAN, ZER NOLAKO ESTALKIA JAR DAITEKEEN AZALTZEN.

2010eko Ordenantza Fiskalak, onartuak

Datorren urterako Ordenantza Fiskalek bere bidea egin eta behin betiko onarpena jaso dute. Ordenantzak jendaurrean ikusgai egon diren artean, bi erreklamazio aurkeztu dira. Bat ez da onartu, bestea partzialki bai, Haur Eskolako zerbitzuko tarifei buruzkoa hain zuzen. Egun erdiko zerbitzuko kuota 6 eurotan igotzea proposatzen zen, "egun osoko zerbitzura orekatzeko". Alkate Xabier Mikel Errekondok argitu zuenez, "aldaketak egitasmoaren oreka ekonomikoa ez du aldatuko". Gobernu taldearekin batera, Aralarrek aldeko bozka eman zuen, nahiz Joxe Ramon Furundarenak, "prezioetan bide garbiagoa jartzea" eskatu zuen, euren iritziz, ezin baitira urtetik urtera prezioak aldatzen ibili. PSE-EEko zinegotzia abstenitu eta Alkarbide udal taldea aurka agertu zen, onartutako aldaketen aurrean alegazio epe berri bat irekitzea eskatzen baitzuen Luis Mari Ormaetxeak.

Azaroaren 25ean, adierazpen instituzionala

Heziketari oinarritutako prebentzio neurriak, eraso baten ondorengo neurri asistentzialak edota erantzun soziala artikulatzeko beharra ikusten du Udalak, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko. Hala dio behintzat, azaroaren 25ean oroitzen den indarkeria mota honen egunaren haritik, udalbatzak onartu zuen adierazpen instituzionalak.

Udalerrian bertan ere irauten duen gaitza dela jabetuta, udal politika aktibo, osoa eta koordinatua garatzeko konpromisoa berresten du Udalak, testuan zehazten denez, "hitzetatik ekintzetara pasatuz". Mozioak, azaroaren 25ean burutzeak ziren ekitaldietan parte hartzea deitzen zien herritarrei, gogoratu, aurten bost emakume erail dituztela Euskal Herrian eta milaka direla hedabideek aipatu dituzten gertakariak, salaketak... Testua aho batez onartu zuen udalbatzak.

EHGAM, Vaticanoko adierazpenen aurka

HIESa/GIBaren arazoa ezin da konpondu preserbatiboekin; aitzitik, preserbatiboek arazoa handitu egiten dute. Martxoaren 17an, Aita Santuak egindako adierazpenak dira horiek. EHGAM-ek udaletxean aurkeztutako mozioan udalbatzari adierazpen horiekiko kezka agertzeaz gain, preserbatiboak sexu bidezko infekzioen aurkako teknologiarik eraginkorrena dela adieraztea eskatzen du. GIBaren aurkako borroka, eta honenbestez baita preserbatiboena ere, sustatzea alde agertzen dute. Udal taldeak adierazpenaren alde agertu ziren. Alkarbidek ordea, aurka bozkatu eta bere testua irakurri zuen. Gobernu taldetik irakurri zenaren antzekoa, baina eskaera horiei, besteak beste, 2010eko udal aurrekontuetan Afrikako Saharar azpiko herrialdeetara prebentzio programak finantzatzeko diru partidak bideratzea eskatu zuten.

J.ORBEGOZO
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA
BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 • 659602789

izagirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitate@hotmial.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

URDAINTZI S.L.
eraikuntza
943 36 50 95-609 06 81 11
Goiz argi etxea 37, KALEZAR



“Ederki etorri zaigu Q kalitate ziurtagiria eskuratzea”

Euskadin, 58 dira Q egiaztagiria jaso duten jatetxeak. Estatu mailan, horretan ere, lehen postuan dira bertako jatetxeak. Gainera, gero eta jatetxe gehiago dira ziurtagiria eskuratzeko ahalegina egiten ari direnak. Bezeroak erakartzeaz gain, zerbitzu hobea eskaintzeko bidea ematen dielako Q ziurtagiriak. Hala adierazi digu Sonia Tapiak, Tolosako Fronton jatetxeko sukaldariak.

Sektore turistikoarekin lotutako kalitate-sistemaren aldeko apustua egin duzue. Zeintzuk izan dira pauso hori emateko arrazoi nagusiak?

Sonia Tapiak. Guk pentsatu izan dugu, enpresa barruan, horrelako planak ezartzea ona dela. Horregatik hasi ginen kalitate plan hau bideratzen eta gustura hartu dugu izendapena.

Q kalitatea bezalako ziurtagiriaren jabe izateak, ze abantaila ekarri dizkio zure enpresari?

S. T. Q kalitate ziurtagiria ezaguna da, eta bezero mota jakin batentzat, erakargarria da. Q kalitatearen bila ibiltzen direnak, gure jatetxera ere hurbiltzen dira.

Q kalitatea ezartzearen ondorioz, zer nolako hobekuntzak eman dira zuen lan egiteko moduan? Kudeaketan, barne-antolakuntzan, azpiegitura alorrean...

S. T. Antolakuntzan salto handia egin dugu. Barne antolakuntzan, etxe barruko paperak nola antolatu, eskaerak nola egin... Hori antolatzen asko lagundu digu.

Bide batez, argiak ondo eduki, emergentziatzko irteerak ezarri... Dena eguneratu dugu.

Bezeroa gustura sentitu dadin, zer nolako hobekuntzak eman dira ziurtagiriari esker?

S. T. Guk beti kontuan izan ditugu bezeroen inpresioak. Ahoz aho, aurrez aurre jaso izan dugu bezeroen

iritzia. Orain, plan honi esker, inkestak pasatzen ditugu eta oso kontuan hartzen ditugu.

Zer esango zenieke sektore turistikoan ari direnei. Animatuko zenituzke kalitate sistemarekin lan egitea?

S. T. Hasieran, beldurra ematen duela esango nuke. Paper asko eskatzen dituzte, ez daukazu denbora...

Baina dinamika egokia hartuz gero, eguneroko martxari egokitzea ez da zaila. Guri, egia esan, oso ondo joan zaigu gure enpresan Q kalitatea ezartzea.

Q ziurtagiri honen jabe izateak, zure enpresaren lehiakortasuna hobetuko duela uste duzu?

S. T. Gure kasuan, ni sukaldaria naiz eta guk hazteko erabili dugu Q kalitatearen ziurtagiria.



TOLOSAN DAGO FRONTON JATETXEA.
Q KALITATE ZIURTAGIRIA
JASO BERRI DUTE.

Q kalitatearen kultura sustatzeko, ze aldaketak egin dituzue edo ze aldaketa egiteko asmoa duzue?

S. T. Aldaketa handiak ez ditugu egin, egia esan. Kalitatezko produktuekin lan egin dugulako beti, horren aldeko apustua egin dugu hasieratik. Gure produktuak kalitatekoak dira eta ez dugu aldaketa handirik egingo zentzu horretan.

Eusko Jaurlaritzak
Basquetour Turismoaren
Euskal Agentziarekin batera,
enpresak lehiakorrago izateko
beharrezkoak diren tresnak eta
laguntzak eskaintzen ditu ondo-
rengo programen bidez:

Jardunbide egokiko programak
Kalitatearekiko sentsibilizazioa
eta konpromisoa, sektoreko profesio-
nalei zuzendua.

Kalitate Turistikoko
Q programak
Kalitatearen kudeaketa-sistema

neurtzen duen ziurtagiria.
Bezeroaren gozamina ziurtatzen
duen programa.

EFQM ereduko programak
Kalitatea goreneko mailan
ziurtatzen duen programa.

**Q Kalitate Turistikoaren
ikurra jarri zure
establezimenduan!**

94 607 75 86
94 404 74 70

www.turismoa.euskadi.net
www.euskalit.net





www.katalogoa.org

plazerrezko produktuen ataria

PRODUKTUAK KONTSULTATU, EROSI EDOTA GOMENDATZEKO AUKERA AURRERANTZEAN

Durangoko Azoka egunotan zabalik, eguberriak ate joka... Urteroko hitzorduotarako baliagarria izango zaigun euskal produktuen katalogoa kalean da jada. Papereko edizio 9.000 ale banatu dituzte Buruntzaldean.

Baina noiznahi kontsulta liteke gida, www.katalogoa.org web orrialdean.

Eguneratu, itxuraz berritu eta edukiz indartu dute euskal produktuei eskainitako ataria.

Burua hausten denbora galtzea saihesteko erremedioa eskueran duzu. Euskal Herriko berrehundik gora udalek euskarazko produktuen katalogoa argitaratu dute. Bertan dituzu bilduta merkatuan dauden disko, liburu, joko, jostailu, aldizkari eta beste hainbat produkturen erreferentziak. Produktu berriak asko, eta interesgarriak denak, 16 urte bitarteko haur eta gaztetxoek aisialdiaz gozatzeko. Euskal Herri osoan zehar 240.000 ale banatu dira egunotan.

ORAIN PAPEREAN ETA NOIZNAHI SAREAN

Papereko edizioak bereziki orain izango du bere balioa. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokara doanarentzat, poltsikoan produktuen gida eraman eta errazago aurkituko ditu, kalitateko eta euskarazko jolas edota aldizkariak. Bestela, laster bisitatuko gaitu Olentzerok ere. Ikazkinari helarazi nahi dion eskaera zerrenda egiten ari direnentzat lagungarri suertatuko zaie gida. Eguberriak igarota ordea, urtean zehar, izaten da beste aitzakia mordoa opariren bat egiteko; urtebetetzeak direla, detailtxo bat egiteko arrazoiak... Paperekoak bere iraungitze data izan ohi du, ez ordea sareak. Euskal produktuen katalogoa plazaratu izan ohi dutenek, teknologia berriek emandako aukerak baliatu nahi izan dituzte web orria goitik behera berritu eta eskaintza eguneratzeko. Hauxe, aurtengo berrikuntza nagusia.

ARGITALETXEEN PARTE HARTZEA

Web orrialde berritua, elkarlanaren emaitza izan bada prestakuntza fasean, aurrerantzean ere kudeaketa lanarekin gauza bera gertatuko da. Pasahitz baten

bidez, euskal produktuak plazaratzeaz arduratzen diren argitaletxeek katalogo edizio digitalean dituzten produktu berrien informazioa zintzilikatu ahal izango dute, eta hartara, euskal produktuen katalogoko web orria eguneratzen joango da.

Bospasei produktu berrienak "nobedadeak" izeneko atalean zintzilikatuko dituzte, web orrira sartu eta erabiltzaileak berehalakoan ikus ditzan. Atari berrituko atal dinamikoena izango da ziur aski, euskarazko produktuak kaleratu ahala, argitaletxeek bertan erakusgai jarriko dituzte eta. Bestalde, produktu sorta zabala ezagutzeko aukera emango du aurrerantzean aipatu atari berrituak. Produktu asko eta desberdinak izango direnez, bilaketa sistema erraza jarri dute erabiltzaileentzat. Adin tartea, prezioa, egilea, produktuaren izena, produktu mota... modu askotara egin dezaitezke bilketa.

ADIN TARTEKA SAILKATUA

"Katalogoari lotutako web orrialde berrituak iruzkinak egiteko aukera ematen du"

Produktu bakoitzaren ondoan oinarritzko informazioa ageri da; irudi bat, prezio orientagarria, edota argitaletxeen izena. Musika lan edota liburuen kasuan gainera, baita adin tartearen arabera sailkatuta ere. Berrienak, aurretik kaleratu diren alor desberdinetako produktuak izar batekin ageri dira, gida eskutan duenak aldi berean nobedadeen berri izan dezan. Aipatu ikurra daramaten produktu batzuk, kalitatearen ikur ere badira, egitasmo eragileei bereziki gomendatzeko modukoak iruditzen zaizkienak.



PRODUKTU SORTA ZABALA BILTZEN DU AURTENGO KATALOGOAK, AISIALDIA EUSKARAZ PRIMERAN PASATZEKO.

GUSTUKOA, GOMENDATU

Liburu, jostailu edo bestelako artean, zalantzarik izan dezake edonork. Zerbait erosi nahi, baina ezin aukeratu, ez baitu produktua ezagutzen. Horri ere konponbidea aurkitu diote. Katalogoari lotutako web orrialde berrituak iruzkinak egiteko aukera ematen du.

Hartara, hautaketa egin baino lehen produktu bera erosi duten gainerako erabiltzaileen iritzia eta aholkuak ezagutu daitezke. Eta konbentzituak bagaude eroatera animatu, gauden lekutik mugitu ere egin gabe. Gustuko dugun produktuan klikatu eta zuzenean, bere argitaletzeko web orrialdean sartuko gara, erosketa egiteko.

Modu tradizionala nahiago duenak, diru-zorroa patrikan sartu eta norbere herriko liburu dendaren batera joan liteke. Saltokira sartu baino lehen denda barruan euskal produkturik saltzen ote duten jakin ahal izango du. Egitasmo honetako eragileek iragarri dutenez, "hemen euskarazko produktuak salgai" dioen pegatinak banatzeko asmoa dute. Produktua erosi eta ezagututa, norbera jar liteke ordenagailu pantailaren aurrean eta euskal produktua epaitu; gustukoa ote duen, zergatik iruditzen zaion gomendagarria... Guztia web orrialde-tik atera ere egin gabe.



EUSKARAZKO PRODUKTUEN katalogoa 2009-2010



www.katalogoa.org

euskarazko produktu
katalogoa



Menu: PRODUKTUAK, BILAKETA, BULETINA, IRUZKINAK, HARRERAK, LOTURAK, KATALOGOAK

bedadeak

eski Musika Prezioa: 150.000 € Aroa: 3.00 Kohortak: 1	elena Liburuak Prezioa: 25.000 € Aroa: 3.00 Kohortak: 1	etsi Liburuak Prezioa: 15.000 € Aroa: 3.00 Kohortak: 1	erka Liburuak Prezioa: 15.000 € Aroa: 3.00 Kohortak: 1
--	--	---	---

bilaketa

Produktuak

zerbitzuak

- BULETINA: Sareko informazioa, filmak
- IRUZKINAK: Komunitateko beste erabiltzaileekin
- HARRERAK: Hitzaldiak, galdak

katalogoak

2009 - 2010 KATALOGO OROA

info@katalogoa.org

- musika
- DVD filmak
- aldizkariak
- komikiak
- liburuak
- gurasoentzako materiala
- informatika
- jostailu eta jokoak

info@katalogoa.org



BURUNTZALDEA

Sagardo eta babarrun festa, abenduaren 20ko Santo Tomas azokan

Urrutira joan gabe, herrian bertan babarrun eta sagardo ekoizle finak ditugu. Abenduaren 20an egingo den Santo Tomas azokan, beste behin ere, urteko uzta onena saritzeko baliatuko da. Babarrun zein sagardo lehiaketetan izena emateko epea ireki da.

Sagardo lehiaketa

Sagardotegiak ez dira sartuko lehiaketa honetan. Sagardoa etxean egiten duenak herriko plazara ekar dezake herritarrek proba dezaten eta, gainera, lehiaketan parte har dezake.

Hori bai, partaide bakoitzak 8 botila ekarri beharko ditu, eta botila bakoitzeko 1,5 euro ordainduko zaio.

Babarrun lehiaketa

Parte hartzaile bakoitzak 1 kg babarrun ekarri behar du.

Kg bakoitzeko 12 euro ordainduko zaio. Lehiaketan, ezaugarri hauek hartuko dira kontuan:

-Itxura: osorik edo hautsita dagoen, zimurrak...

-Kolorea: zenbat eta beltzagoa orduan eta hobetagoa.

-Berdintasuna: tamainaz, kolorez... Elkarren berdinak izatea.

-Dizdira: berezko dizdira beste edozein produktarekin (olio, abrilantadore...) estali edo aldatua izaten bada lehiaketatik kanpo geratuko da.

-Garbitasuna: partikula arrotzik ez izatea.



IAZ, 35 IZAN ZIREN BABARRUN LEHIAKETARA AURKEZTU ZIREN BABARRUN EKOIZLEAK. SAGARDOGILEEN ARTEAN, 21 IZAN ZIREN PARTEHARTZAILEAK.

Sariak

Babarrun eta sagardo lehiaketan, ondorengo sariak izango dira:

- 1. saria: 150 euro + txapela
- 2. saria: 90 euro.
- 3. saria: 50 euro.

Informazioa eta epea

Izen emateko azken eguna: **abenduak 17 osteguna**. Baldintzak eta gainontzeko zalantzak argitzeko deitu NOAUA!ko bulegora (943 360 321).

Izen ematearekin batera, lehiaketan parte hartuko duten babarrun eta sagardoak ekarri beharko dira NOAUA!ra.

Iaz partehartzaile ugari

Iaz, 35 izan ziren babarrun lehiaketan parte hartu zuten ekoizleak. Sagardo lehiaketara, aldiz, 21 izan ziren euren sagardoa aurkeztu zutenak.

Babarrun lehiaketan, Antonio Izagirre (Aldapa baserria) izan zen garailea. Bigarren, Idoia Orbegozo (Galdagorri baserria) eta hirugarren Miguel Arrastoa.

Sagardo lehiaketan, Jose Manuel Lizarralde jaso zuen lehen saria (Etxetxo baserria), Pedro Aizpuruak bigarrena (Zugasti Baserria) eta hirugarren Ibindos baserria izan zen.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Arlatitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

Patri Jatetxea



K./nagusia 14. ☎ 943 362 725

ERRAZKIN
Igeltzeritza S.L.

Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679

K./ Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL

Datorren astean, jostailu erabilien truke azoka


Jostailu erabilien azoka antolatu du Hitz Aho guraso elkarteak. Erabiltzen ez diren jostailu, ipuin, liburu, CDrom eta antzekoak trukatzeko aukera paregabea. Azoka abenduaren 12an egingo da, baina azokarako osagaiak abenduaren 9, 10 edota 11n eraman behar dira arratsaldeko 17:00etatik 18:30etara, Sutegiko atarian jarriko den mahaira.

Jostailuei erabilpen berriak eman eta, hauren artean ohitura hori zabaltzea dira azoka honen helburu nagusiak.

Ekimen honetan parte hartzeko, orde, baldintza hauek bete behar dira:

- Jostailuak osorik egon behar dute. Norberari hartzea gustatuko litzaiokeen moduan.

- Bilketa egunetan jasotzen dena musu truk emango da. Horren truke,



HITZ AHOK ANTOLATU DU ABENDUAREN
12KO TRUKE AZOKA.

nahi izanez gero, txartel bat jasoko du bakoitzak azoka egunean beste jostailuren batekin aldatu ahal izateko.

- Azoka egunean jostailuak trukatzeko, 8 urtetik beherakoek arduradun batekin parte hartu beharko dute.

- CDrom, DVD eta antzekoek jatorrizkoak izan beharko dute.

- Azokaren bukaeran geratzen diren jostailuak ikastolarentzat izango dira.

Nafarroaren konkistari buruzko ikusentzunezkoa

Abeduaren 9an, Durangoko Azokaren biharamunean, "1512 Nafarroaren konkista" DVDa emango dute Sutegin. Lan hau azokan aurkeztuko dute baina Nafartarrak taldearen ekimenez, abenduaren 9an ikus ahal izango da Sutegin, arratsaldeko 19:30etik aurrera. Sarrera doan. Bide batez, DVDaren kopiak ere salgai jarriko dituzte abenduaren 9ko saioan.



SUTEGIN ESKAINIKO DUTE,
ABENDUAREN 9AN SUTEGIN.

Abenduaren 20an, **Santo Tomas** azoka Har ezazu parte **babarrun** eta **sagardo** lehiaketan




Partehartzaile bakoitzak babarrun kilo bat aurkeztu beharko du. Sagardo lehiaketan, aldiz, zortzi botila.



Izen ematearekin batera, lehiaketan parte hartuko duten babarrun eta sagardoak ekarri beharko dira NOAUA!ko egoitzara.

Izen emateko azken eguna: abenduak 17 osteguna.

Informazio gehiago: 943 360 321





Badatoz Lore eta Ikatz, Olentzeroren lagunak

Gabonen atarian gaude. Laster iritsiko da Olentzero. Aurretik ordea, ikazkinaren bi lagun handi hurbilduko dira herriko auzo guztietara, Gabonen berri ematera eta Olentzeroren bisita iragartzera.

Abenduak 11 ostirala, 17:30
Aginagako ludotekan.

Abenduak 14 astelehena, 17:30
Kalezarren auzo elkartean.

Abenduak 15 asteartea, 17:30
Santueneko auzo elkartean.

Abenduak 16 asteazkena, 17:30
Zubietan.

Abenduak 18 ostirala, goizean
Kaxkoan. Kalejira bidez emango zaie hasiera Gabonei. Lore eta Ikatzek Olentzerorentzako gutunak jasoko dituzte bertan.

Azken ekitaldia Sutegin egingo dute, abenduaren 23an 17:30ean.

Jean Bordaxar eta bere taldea, Zuberoako ikastolen aldeko kanpainan

Nafartarrak taldeak Zuberoako ikastolak laguntzeko kanpaina jari du martxan. Gabonetako otarren bidez, diru bilketa egiten aritu da. Otar horiek eskatzeko epea aste honetan amaituko da. Bordatxon, Txiribogan eta NOAUA!n eman daiteke izena edota e-mailez, helbide honetara idatziz: nafartarrak@terra.es

Kanpainak jarraipena izango du datorren astean, Jean Bordaxar kantariaren taldeak Sutegin eskainiko duen kantaldiarekin.

Jean Bordaxarrekin batera, Jean-



ABENDUAREN 12AN SUTEGIN
ARITUKO DIRA, 19:00ETAN HASITA.

Noël Pinque, Jean-Pierre Luro eta Robert Larrandaburu arituko dira kantuan, abenduaren 12an.

Abenduaren 6an, haurrentzat zinea

Animal Channel, hala du Aizena igande honetan Sutegin eskainiko duten pelikula. Cathy zikoina eta Nicolas sagua dira protagonistak. 17:00etan hasiko da eta film hau, batez ere, 7-12 urte bitarteko haurrei zuzendua dago. Sarrera, 2 euro eta egunean bertan salgai.

Abenduaren 7an, Duo Jaderen kantaldia

Pirritx eta Porrotxen disko berrian hartu du parte Kubako Duo Jade taldeak. Urrian, frontoian egin zen kontzertuan hartu zuten parte. Astelehenean, ordea, kantaldia eskainiko dute Oskar Estanga kantariarekin batera, baina Sutegin. 19:30ean hasiko da kontzertua. Sarrera doan.



DUO JADE KUBATARRAK.

Abenduaren 8an, Odol Emaileen Eguna

Abanduaren 8an ospatzen dute urtero Usurbilgo Odol Emaileen Eguna. Elkartekoek aditzera eman duteenez, aurten, Patri jatetxean egingo da bazkaria (azaroa amaitu baino lehen izena emateko deia egin zuten).

Bazkariari ekin baino lehen, zendutako odol emaileak gogora ekarriko dituzte.

Juan Jose Arangurenak irabazi du Mikel Laboa eskultura lehiaketa

Donostiarra da eta *Ikimilikiliklik* kantua maite du gaztetatik. Hori izan du inspirazio iturri eta hala du izena, hain zuzen, Juan Jose Aranguren donostiarrak egin duen eskulturak. Epaimahaiak lan hau aukeratu du lehiaketara aurkeztu diren 27 lanen artean. Hiru hilabeteko epean, Mikel Laboa plazan jarriko dute. 3 metroko altuera hartuko du altzairu-kortean egingo den eskulturak.

Egilea donostiarra da eta NOAUA!ri adierazi dioenez, "ez naiz inoiz Mikel Laboaren jarraitzaile sutsua izan. Baina gaztetatik, *Ikimilikiliklik* kantua maite dut eta hori izan da nire inspirazio-iturri".

Zumetaren muralaren osagarri

Zumetaren muralak ere eragina izan du artelana egiterakoan. "Plazako atal garrantzitsua da murala, aldare modukoa. Eta nire eskultura, Zumetaren muralaren osagarri irudikatu dut".

Xabier Mikel Errekondok eskerrak eman zizkien partehartzaile guztiei. Epaimahaiari zail jarri zioten azken erabakia, baina aurkeztu diren artista denentzat esker oneko hitzak izan zituen.



EGILEA, MAKETA ESQUARTEAN DUELA. ALEX TELLOREN ESKUTIK JASO ZUEN SARIA.

Aurkeztu diren maketak, ikusgai

Abenduaren 9ra bitartean, Mikel Laboaren omenezko eskultura lehiaketara aurkeztutako lanak ikusgai izango dira, Sutegiko erakusketa aretoan. Tartean, noski, Juan Jose Arangurenen maketa irabazlea. Kanpotik ikus daitezke lanak baina aretoa ordutegi honetan izango da zabalik: astelehenetik ostiralera, 10:00-13:30 goizez; 16:00-19:00 arratsez.



AURKEZTUTAKO LANEN MAKETAK SUTEGIN IZANGO DIRA, ABENDUAREN 9RA ARTE.

Pilota Elkarteko talde guztiak martxan

Ikasturte hasieratik entrenatzen ari dira Usurbilgo Pilota Elkarteko gazte zein helduak. Txapelketa batzuetan ere murgilduta daude. Pilotan ez ezik, paleta goman, paletan eta paleta larruzko txapelketan ere arituko dira herriko pilotariak. Urtero bezala, egutegiak jarri dituzte salgai. Erosten dituztenen artean, afariak zozketatuko dituzte.

Benjamin, alebin eta infantiletan, hamasei gaztetxo dabilta pilotan entrenatu eta partidak jokatzen. Hauen entrenatzailea Andoaingo Joxean Esnaola da. Talde bakoitzak astean bi entrenamendu egiten ditu Usurbilgo pilotalekuan.

Kadete eta jubenetan, zortzi gazte dabilta pilotan. Hauen entrenatzaileak Joxe Antonio Errasti eta Jon Olaizola dira. Talde bakoitzak astean bi saio egiten ditu Aginagako Ariztitxo pilotalekuan.

Nagusien mailan, hogeit hamar pilotari ari dira 2009-2010 sasoiaren. Hauek astean bi entrenamendu egiten dituzte Aginagako Ariztitxo pilotalekuan.

Paleta gomaz, zortzikote bat dabil entrenatu eta partidak jokatzen. Hauek astean bi saio egiten dituzte Aginagako Ariztitxo pilotalekuan.

Paleta eta pala larruz, berriz, zortzi lagun ari dira Usurbilgo Pilota Elkartean izenean jokatzen. Hauek astean bi saio egiten dituzte Zubietako pilotalekuan.

Honako txapelketa hauetan hartuko dute parte: **Gipuzkoako elkarte**



ARGAZKIAN EZ DAUDE DENAK, BAINA DAUDENAK BADIRA.

arteko txapelketa, irailtik gabonetara; Gipuzkoako elkartearen trinkete txapelketa, abendutik martxora; Udaberri txapelketa, urtarriletik Aste Santura; Herri Arteko Txapelketa, apiriletik ekainera; Selektzioen arteko Euskal Herriko Txapelketa, martxotik maiatzera...

-Txapelketa pribatuak (herrietan antolatzen direnak; batez ere udaberri eta udaran). Tartean, Usurbilgo eta Aginagako txapelketak.

Egutegiak salgai

Egutegi batzuk atera ditu Pilota Elkartek. Ale bakoitza bi eurotan salgai. 2010eko urtarrilaren 6ko loteria zozketarekin batera, Aginaga eta Saizar Sagardotegietan bina pertsonentzako afariak zozketatuko dira.

Babesleei eskerrak

Ondoko laguntzaileen babesari

esker ari dira lanean: Usurbilgo Kirol Patronatua, Aginaga Sagardotegia, Saizar Sagardoa, Alkartasuna kooperatiba, Bordatxo edaritegia, Aizpurua autobusak, Hurbilago, Easo, Manpel, Kima masaialekua, Usurbil Autoak, Kutxa, Bruño, Coisa.



Izaskun Huizik irabazi du Usurbil KE eskubaloitako taldeko azken zozketa; Txixardin Beltzan birentzat afaria. Irudian, hurrez inguratuta dago sariduna. Eskubaloikoek eskerrak eman nahi dizkiete partehartzaile denei.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8. behea · 943 363 348 · 609 888 021

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. © 943 362 725

ERRAZKIN
lgetzeritza S.L.

Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679

K/ Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL

Joxe Domingo Aizpuruak

abenduaren 11n etxean egon beharko luke

Abenduaren 11n, bere urtebetetze egunean, etxerako bidean behar luke Joxe Domingo Aizpuruak. Perpignango (Frantzia) kartzelan kondena bete ondoren, datoren ostiralean aske utzi eta frantziar estatutik kanporatuko dute. Senide eta lagunenez kezka iturria da, muga pasa ostean, La Junqueran Usurbilerako bidea hartu edota hainbat kasutan gertatu izan ohi den bezala, atxilotu eta Madrilera eramango ote duten. Usurbilen nahi ditugu elkarteak ere bere kezka azaldu du, Udalean aurkeztutako mozio baten bidez.

NOAUA! Egun hauek nola bizi dituzue?

Itziar Aizpuru. Lehen zer egin zioten gogoan jakinda, urduri. Lehen ere aske utzi zuten, baina gero... Pentsatu nahi dugu, duen gaixotasunarekin gainera, oraingoan lehengo tratua ez diotela emango. Bera ere nahiko urduri egongo da.

Maite Lasa. Urduritasuna, kanporatua izango delako eta lehen duen esperientziarekin... Gainera ez dakigu ziur, non utziko duten; Junqueran aske utzi edo Madrilera eramango duten.

N. Une honetan zer moduz dago, osasun aldetik?

M. L. Hobeto dago. Bere kasuan, protokoloa guztiz bete dute.

Perpignango ospitalera ateratzen dute. Proba guztiek emaitza onak eman dizkiote. Berak badu zirujauaren agiri bat, esanez ezin dituela bidaia luzeak egin.

N. Inoiz baino preso gehiago kartzelatan, eskubide urraketak... Aspaldiko egoera okerrena dela esango zenukete?

M. L. Bai eta ikusten ari gara, egunez egun; kalean argazkien gaiarekin. Bestalde, kartzelara zoaz bisitan, miatu egiten dituzte senideak. Baina ez gaituzte apalaraziko, hori argi eta garbi dugu. Ez gara hortik pasako. Nahiz horren aurrean badakigu zer dugun, bisitarik gabe gelditzen ari gara.

N. Sakabanaketa politikak zer modutan eragin dizue zuei?

M. L. Perpignanek lotura txarrak ditu. Trenez joan izan naiz bisitatzen. Lauzpabost aldaketa egin behar izan ditut trenean. Toulousen normalean bi ordu egon behar joaterakoan eta etortzerakoan beste bi ordu. Egun bat behar duzu joateko, eta beste bat etortzeko. Han gelditu behar zara lotan.

I. A. Guztia, senidea 45 minutuz ikusteko. Urte gehienak Parisen egin ditu. Hain urruti egonik, treneko txartelak hartzen ditugu eta gero bisita eguna aldatzen dute, edota trenetan greba eguna da. Eta bisitarik gabe gelditzen gara. Halakoak askotan gertatzen dira, bai guri eta gurekin ibili diren guztiei.



JOXE DOMINGOREN SENIDEAK POZIK ETA ALDI BEREAN KEZKATUTA AZALDU DIRA.

Kanporaketarekin, kezkatuta

Pariseko epaitegiak jarritako kondena beteta, abenduaren 11n Joxe Domingo Aizpuru herritarra aske utzi eta frantziar estatutik kanporatuko dute. Aurrekariak kontuan hartuta, udalean aurkeztutako mozio baten bidez kezka agertu du Usurbilen nahi ditugu elkarteak. Horregatik, espetxetik atera eta gerta daitekeenaren gertuko jarraipena egitea galdegiten diote Udalari. Eta atxilotua izango balitz, bere egoeraz informatzeko ahalik eta tramite guztiak egitea, habeas corpus prozedura aplikatzeko urratsak ematea eskatzeaz gain. Ez baita ahaztu behar, gaixo dagoela Aizpuru. Atxiloketa aldi, tratatu txar edo ankerrik jasoko balu Joxe Domingo juridikoki babesteko Udala akusazio partikular gisa aurkeztea ere eskatzen da mozioan.

Aranburuk eta Uribek kalean behar lukete

Presoen eskubideen aldeko beste mozio batean zehazten zenez, Xabier Aranburu eta Ramon Uribe herritarrek kalean beharko lukete egun, baldintzapeko askatasunean.

Karlos Martinen aurkako epaiketa hastera doa

Abenduaren 9an hasiko da Karlos Martinen aurkako epaiketa. Lasartearra izatez, Usurbilen bizi da duela urte batzuetatik hona. Epaiketa honen harira, Ezker Abertzaleak hainbat ekimen iragarri ditu: abenduaren 9an, Karlosi babesa adierazteko, Madrilgo Audiencia Nazionalera joateko deia egin dute, kotxez edo autobusez. Abenduaren 11n, elkarretaraztea egingo dute Mikel Laboa plazan eta, azkenik, mozio bat ere aurkeztuko da Udaletxean.

2003ko urrian atxilotu zuten Martin. Egun horretan beste 34 pertsona atxilotu zituzten, Frantzia zein Espainiako polizia elkarrekin buruturiko operazioan. Atxilotutakoei ETaren kaptazio aparatuaren kide zirela egotzi zitzaizkien. Atxilotutakoei tratatu txarrak jaso zituztela salatzen zuten.

Karlos Martinek ia hiru urte eman zituen badaezpadako espetxealdian. 2006ko ekainean, 30.000 euroko bermea ordaindu eta gero, aske utzi zuten.

Aralarren barrena ibili gara

Egun zoragarri bat aurrean genuela, Aralar aldera abiatu ginen. Guarda-etxe ingurura iritsi bezain laster basora sartu eta bertan galduta egoteko aukera izan genuen. Perretxiko ugari ikusi eta aztertu genituen Mikelen eskutik: Amanita Phalloides, onddoak, gibel urdinak, esnegorriak, kuleto faltsuak,... batzuek bildu, beste batzuei argazkiak atera... baina gehienak txarrak ziren. Trikuharria ere erakutsi ziguten.

Kolore guztietako hostoak ikusi eta zanpatu ondoren atera ginen basotik, eta mendi gailurrerantz abiatu ginen. Bordak, arkuak, leizea ... topatu genituen. Aldapa luzeak ere igo genituen baina udazkeneko koloreek bidea argitzen zuten. Tutturre zen igo genuen mendia, 1.282 m. Bertatik Pirinioak, eta honetatik Euskal Herriko mendirik altuena: Hiru Erregeen Mahaia; baita Andatza bera ere, han urrunean



PERRETXIKOAK AZERTU ETA TRIKUHARRIAK IKUSTEKO AUKERA IZAN GENUEN.

Ernio, Aiako Harriak, Txindoki... denak ikusteko aukera izan genuen.

Beste aldetik jaitxi ginen eta behean bazkaldu, jostatzeko denbora ere izan genuen, botak eta galtzerdiak kendu,

korrika saio batzuek egin eta generaman kamara argazkiz osatuta zegoenez, itzuli ginen goizean pasatutako bidera.

DBH 2ko irteera

Leioako Gazte Orkestra Salvatore Elizan

Abanduaren 12an larunbata, Leioako Gazte Orkestrak kontzertua eskainiko du Salvatore Elizan. Margarita Lorenzo de Reizabalen zuzendaritzapean arituko da Gazte Orkestra, 18:00etan hasita. Zumartek antolatu duen saio hau doanekoa izango da. Strauss, Schubert, Brahms edota Andersonen obra ezagunak eskainiko dituzte.

Euskararen Egunean, ekitaldiak Artzabalen

Etumeta AEK Euskaltegiak bi Ekitaldi antolatu ditu Euskararen Egunean. Abenduaren 3an osteguna, 18:00etan hasita, mokadua eta "Nömadak Tx" bideo emanaldia Artzabalen.

Eta arratsaldeko 19:00etan, Etiopiaren inguruko argazki emanaldia, Ana Urdangarin eta Larraitz Izagirrereren eskutik (Kultur Astean eskainitako proiektioan oinarrituta).

Usurbildarrak

Donostiako maratoian

Donostiako maratoian, lau usurbildar iritsi ziren helmugara. Antolatzaileen webgunean, hauek dira topatu ditugun emaitzak:

Jon Tapia Lizarraga	2h 51'50''
Koldo Manterola Aizpurua	2h 58'40''
Iñaki Gerica Juan	2h 59'28''
Juan Mari Agote Goiaran	3h 28'42''

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

ANTXETA
taberna-jatetxea
ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak
EGUZKITZA, 4 - 943 370 344

JUANTXO
BURDINDEGUA
Zubiarenean 8
943 370 008

Usurbil FT taldeak garai berri bati ekin dio

Udan zehar lanean aritu ziren Usurbil Futbol Taldekoak. Nabari da, burututako jardunak bere fruituak eman ditu eta; besteak beste, talde egitura indartu eta futbol eskola martxan jartzea lortu dute. Denboraldi honetan, aipatu kirol jardueran, maila guztietan ordezkaritza izango du Usurbilek.

Kolore gorriko kamisetetara itzulita, sendotuta, eta adin tarte zabalagoetara helduta ekin diote denboraldi berriari Usurbil FT-ko kideek. "Egitura indartsuagoa izatea lortu dugu", adierazi du arduradun taldeak.

Buruhauste gehien, jubenil mailako taldea osatzen izan dituzte. Baziren hamar bat usurbildar jokalar lanean has-teko prest, ez nahikoak ordea. "Jokalaria batzuk kanpotik etorri dira", adierazi dute Usurbil FT-tik. Andoaingo Euskalduna Futbol Taldearekin izandako hartu emanen ondorioz, jubenilen taldea osatzeko falta ziren jokalaria handik etorri dira. Hartara, bideratua geratu da urte batzuetan maila horretan egon ez den herriko futbol ordezkaritza.

Infantil mailan ere, taldea ezin osatu zebiltzan. Bileren eta gatzetxoei luzatuta-ko gonbitaren ondoren, 21 mutil agertu ziren.

43 gatzetxo, Futbol Eskolan

Baina uda partean burututako lanak bestelako emaitzarik ere ekarri du. Taldearen egitura indartzeaz gain, zabal-tzeko aurrerapauso garrantzitsua eman dute; Futbol Eskola martxan jartzea. Aipatu egitasmoa gauzatzeko giltzarria izan da ikastolarekin burutu duten elkar-lana. Orain arte Udarregiren izenean jokatzen zebiltzan kirolariak, Usurbil FT-ko kide izatera igaro dira aurten.



USURBIL FT TALDEKO ZUZENDARITZA BERRIAK GOGOTSU EKIN DIO LANARI.

Ez hori bakarrik, kirol alorreko heziketa bultzatu asmoz, Futbol Eskola egitasmoa martxan jarri baitute, 8-12 urte arteko 43 gatzetxo parte hartzen ari dira estreinako denboraldi honetan. Jolas eta partiden bidez, kirolaz gozatu, baina hez-tea ere bultzatu nahi dute, lagun arteko autonomia edota diziplina bezalako balo-reak landuz.

Hainbat ekintza antolatzen dabilta azken aldian. Pasa den azaroaren 29an, lehen topaketa burutu zuten. Abenduaren 12an, Realeko museoa eta Anoetako futbol zelaia ezagutzeko aukera izango dute.

Laguntza beharra

Usurbil FT-ko arduradun taldearen aurrera begirako kezka nagusietako bat, diru-iturriak dira. "Kirola egitea oso garesti bihurtzen ari da", adierazi dute futbol taldeko ordezkariek. Egun bizi dugun egoera ekonomikoak ez duela batera laguntzen diote. Alde horretatik, eskerrak eman nahi dizkiete modu batean edo bestean, Usurbil FT laguntzen

duten guztiei; bazkietza ordaindu behar duten gurasoei, laguntza ematen duten enpresa, saltoki edota tabernei...

Talde egitura sendotu dute baina "lana soberan dago". Ardura edo eginkizun zehatz batzuetarako, boluntarioak behar dituzte. Informazio gehiagorako edota futbol taldeko arduradunekin hartu emanetan jartzeko, honako helbide hau zabalik dute: futusrbil@yahoo.es.

Lurdes Otegi, kiroldegiko abonatuaren ordezkaria berria

Azaroan burutu zen hautaketa Aprozua amaitu zen azaroaren 25eko hauteskunde egunarekin, Kirol Patronatuak abonatuaren ordezkaria berria aukeratu du datozen bi urteotarako; Lurdes Otegi Iribarren. Partaide politikoekin batera, politikoak ez diren eskolen eta kirol elkarten ordezkariekin batera jardungo du Otegi, 2011 urte bitartean.

ZUBIAURRENEA4-USURBIL

ileapandegi mistoa

943361951

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

USURBIL

663 08 76 71 • 943 24 34 65

txirriStra

KONTBEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

Agenda !

Abenduak 5 larunbata

Ni naiz Hector, ni bakarrik, antzerkia Sutegin. 19:30. Sarrerak Kiroldegian, 8 euro. Egunean bertan, Sutegin, 10.

Abenduak 6 igandea

Animal Channel, haurrentzat zinea. 17:00etan Sutegin. Sarrera 2 euro, egunean bertan salgai.

Abenduak 7 astelehena

Duo Jade eta Oskar Estangaren kontzertua, Sutegin. 19:30ean. Doan.

Abenduak 10 osteguna

Miren Mendoza, ipuin kontalaria, 18:00etan Sutegiko Udal Liburutegian.

Abenduak 12 larunbata

- Jostailu, liburu, CD eta DVDen **truke azoka** frontoian. 11:30-13:00.

- **Lekeitioko Gazte Orkestra** Salvatorelizan. 18:00etan, sarrera saioan.

- **Bordaxar taldearen kantaldia** Sutegin. 19:00etatik aurrera. Sarrera, 5 euro.

Iruña-Veleiako auziari buruzko hitzaldi interesgarria

Orain dela hiru urte Arabako Iruña-Veleian aurkitutako piezek eta grafitoek zeresan handia eman zuten. Ilusioa ordea, laster atsekabeen bilakatu zen. Ika-mika batean sartu ziren adituak eta instituzioak. Hiru urteren ondoren, polemika ez da itzali eta gaiak pil-pilean jarraitzen du.

Une egokian iritsiko da Nafartarrak taldeak antolatu duen hitzaldia. Juan Martin Elexpuru izango da hizlaria. Auzia gertutik jarraitu du eta "Iruña-Veleia, egia ala gezurra?" izenburupean, bere hausnarketak azalduko ditu Sutegin egingo den hitzaldian.

Gai honi lotuta, berriki, unibertsitateko irakasleak, geologoak eta filologoak biltzen dituen herritar talde batek plazaratu du www.sos-veleia.org webgunean irakurgai dagoen manifestua:



HITZALDIA SUTEGIN IZANGO DA, ABENDUAK 10 OSTEGUNA, 19:00ETAN.

"(...) Pentsatzen dugu ez dagoela behar bezala frogatuta grafitoen faltsutasuna, eta benetakoak izatea ere litekeena dela iritzirik, ondorengo eskatzen diegu auzian erabakimena dutenei: piezek hasierako egoeran jarraitzen dutela konproba dezatela, grafitoen analisi eta ikerketa zientifiko berriak egitea agin dezatela, eta parteekin zerikusirik ez duten arkeologo entzutetsuek industria kontrolatuak egin ditzatela aurrez seinalatutako lekuetan (...)"

Eguneko goardiako farmaziak

Abenduak 3, osteguna

De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Abenduak 4, ostirala

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Abenduak 5, larunbata

Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil*

Abenduak 6, igandea

Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Abenduak 7, astelehena

Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Abenduak 8, asteartea

Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Abenduak 9, asteazkena

Urbistondo, San Francisco 1, Lasarte

Abenduak 10, osteguna

Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Abenduak 11, ostirala

De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Abenduak 12, larunbata

Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil*

Abenduak 13, igandea

Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Abenduak 14, astelehena

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Abenduak 15, asteartea

Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Abenduak 16, asteazkena

Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Abenduak 17, osteguna

Urbistondo, San Francisco 1, Lasarte

Abenduak 18, ostirala

Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Abenduak 19, larunbata

Urbistondo, San Francisco 1, Lasarte
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil*

Abenduak 20, igandea

Urbistondo, San Francisco 1, Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ

Castilla Farmazia (22:00-09:00),

Urbieta kalea, 7 Hernani (943 552 941)

*Usurbilen, soilik eguerdira arte

Sendotza taldea

osatzeko deialdia

Ziortza Gazte Elkarteko gazteen saioak jada hasiak badira ere, bada oraindik talde bat hasteke dagoena eta hori Sendotzako taldea da. Abenduaren 10ean jarriko da martxan talde hau.

Beraz, "1993 edo 1994 urtean jaio bazara, esperientzia berri bat bizi nahi baduzu, datorren abenduaren 10ean arratsaldeko 19:30ean hitzordua duzu Ziortzako geletan".

Kontsumo kooperatiba

osatzeko bilera berri bat

Abenduaren 14an astelehena, arratsaldeko 18:00etan, kontsumo kooperatiba osatzeko bilera berri bat egingo da Sutegin. Bilera irekia da.



GONZALEZ EHORZTETXEA

munalurra 8 Usurbil



30.URTEURRENA

Gonzalez Ehorztetxeak 30 urtetan usurbildarrek guregan izandako konfidantza eskertu nahi du:

- Segururik ez duten familientzat Usurbilgo tanatorioa DOAN izango da, gure ehorztetxearen eskutik.
- Segurua dutenak eta ZUZENEAN Gonzalez ehorztetxeari deitzen duten familientzat BONIFIKAZIO bat izango dute zerbitzuan.

24 ORDU, BELATOKI GUZTIAK, SEGURU GUZTIAK, ERRAUSKETAK, LEKUALDAKETAK, EGOITZETAN...

943 36 21 63 - 660 388 652 - 608 167 792

URDAIRA

Sagardotegia

Sagardo naturala

Abenduak 19 BARRIKOTEA
20.00h Urdairan

Aginaga
943 37 26 91




Egun osoa irekia • San Esteban buzoa • t: 943 362 255 • Fava: 943 366 654 • urtinea@euskalnet.net

Aurrera egin



Gipuzkoako Foru Aldundia
Egiteko Plan de Gipuzkoa



 kutxa



ADEGI



CAMARA DE DEFUSIOA
GIPUZKOARAKO BARRUTIA



Diputazioak
Auzumendi de San Sebastian



gipuzkoa **aurrera**

Aurrera egin, elkarrekin.

Gipuzkoa Aurrera aliantza publiko-privatutik elkarlanean ari gara,
indarrak eta ahaleginak batuz.

Gipuzkoa guztiaren gaitetik dagoelako.